

## **5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

**KANALEN artean, honakoak bereiz ditzakegu:**

**Komunikazio-kanalak (Pertzepzioa, ebaluazioa, salmenta ondorengoa)** → Webgunea interneten, sare sozialak (Facebook, Gmail, Instagram...) eta sakelako zenbakia (Whatsapp edo dei bidez komunikatzeko).

**Banaketa-kanalak (Erosketa)** → On line denda, geroago beharbada zenbait dendei gure produktua salduko diegu.

**Salmenta-kanalak (Entrega)** → Posta bitartez produktuen banaketa Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) edo bestela gure Urnietako lokalean (Idiazabal Kalea, 21) jasoz.

**Bezeroarekiko harreman-guneak dira kanalak, eta hiru fasez osatuta daude:**

**1. Erosketa:** web orri bidez → [www.doublejeans.com](http://www.doublejeans.com) izeneko webgunean gurekin harremanetan jartzeko informazioa jarriko dugu (telefono zenbakia, sare sozialetarako linka eta lokalaren helbide zehatza). Erosketak online egin nahi badira, galtzen katalogoa eskainiko dugu, neurri bakoitzaren ezaugarriak aipatuz bertan. Gainera, gure lokalean (bertan) salmentan egingo ditugu.

**2. Entrega:** lokalean jasoz edo bestela Correos bidez bidaliz (4€-ko gainkostu bat gehituz galtzen prezioari).

**3. Salmenta ondorengoa:** produktua jasotzen den unetik 7 eguneko epea izango da galtzak bueltatzeko edo aldatzeko gehienez. Bakarrik neurritz aldatzeko edo galtzek akatsen bat baldin badute onartuko dira eskaerak.